

ANGELUKO IKASLEAK.1997-98ko IKASURTEAOSO GUNEKO ERAKASKERA.HAMARGARREN ERAKASPENA.

19

ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS-GAIA

1. Baionako harrasien kanpo zer egiten dute?
2. Bizia kario dea orduan? Ez dea usteko bitxi bi?
3. Hone hunen hastapeneren lastea lana denentzat?

II

BIZIA BAIONAN 2

Harrasiez kanpo, Sant-Ispirita, Allemarin, San-Leon-eko bazterretan etxe berri hanitz eginik badute; are gehiago egiten hasiak edo hastera joaki; kaputxinetako alde hartarat bereziki azken hamar urthe hautan ez badire berrehun bizitegi eginak, eta nolakoak... Batzu bertzeak baino begikoago. Hetaryik hogoi bat, nehongo jauregirik ikusgarrieneri zorrik ez dutenak; batzu arrotzari eskaintzeko urtheho hunenbertzetan; ehunka baino maizago laka arrandatzen baitute ja askok; bertzek berentzat.

Nonbeit bada diru, nahiz oro zinkurinaz¹¹ ari zaitzun... ezin biziz...

Bizia kario¹²; jan-edan, atherbe, guziak oro odolean behar erosi; eta halere karraskan¹³ aphaintzeko, airean ibiltzeko, etxea etxearen gainerat egiteko dirua burrustan normahik. Oh! ez orok, ez; bainan eskasa dutenek lana bederen badukete; ezpaitire alabainan hok oro berak¹⁴ egiten.

Bitxi dena duzu hiriaren ingurunean hoinbertze etxe berri; hiri barneko jende gaindia¹⁵ hetarat ixuri behar litakela iduri lukelarik, kokahala¹⁶ betherik baitaude bizitegiak, nor non sar gehiago ez baitukezu kasik zilharretan, ez urhetan¹⁷ ere. Oro mukurru¹⁸, edo iduri hala direla.

Puskaz emendatu da jendea, xehe eta larri; bainan gehiago da hemen ari jende xehea, langilea ez baitaue¹⁹ lehen bezen heretsiki; lehen bi barnetan zagozin senhar-emaztek, berez bere edo zupahiru haurrekin, ez dituzte orai aski, hiru edo lau; jateko edo asiten errezebitzeko salunak eta oro behar.

Hau ez da hain makurra heltzen ahal denarentzat, gorputzaren ala arimarendako ez baita on familia bat oro multzoan bizitzea, buhamiak²⁰ bezala, non ez den hek iduri bilhakatu nahi, edo are-agoko, hirian.

III ADITZ IKASKUNTZA

31. Badukete 32. Litakela 35. lukelari

33. Baitaude 34. Baitaue

31. UKAN. Potentiel. Présent

<u>Objet singulier.</u>	<u>Objet pluriel.</u>
Nik duket = Je peux l'avoir	N. dituzket = Je peux les avoir
Hik dukek/n = Tu peux l'avoir	H. dituzkek/n = Tu peux les avoir
Zuk dukezu = Vous pouvez l'avoir	Z. dituzketzu =
Harek duke = Il peut l'avoir	H. dituzke =
Guk dukegu = Nous pouvons l'avoir	G. dituzkegu =
Zuek dukezu = Vous pouvez l'avoir	Z. dituzkezu =
Heiek dukete = Ils peuvent l'avoir	H. dituzkete = etc.

32. IZAN. Conditionnel Présent.

Ni (izan) ninteke = Je serais
Hi (izan) hinteke = Tu serais
Zu " zintezke = Vous seriez
Hura " liteke = Il serait
Gu " gintezke = Nous serions
Zuek " zintezkete = Vous seriez
Hek " litezke = Ils seraient

33. EGON. Indicatif

<u>Présent</u>	<u>Imparfait</u>
Ni nago = je reste	nindagon = je restais
Hi hago =	hindagon = tu restais
Zu zaude =	zinauden =
Hura dago =	zagon =
Gu gaude =	ginauden =
Zuek zaudezte =	zinaudezten = etc.
Hek daude = etc.	zauden = zagozin etc.